

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

37 ikastarok osatzen dute Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lanbide-Heziketako Plana aurtengo bigarren seihiilekorako

Lau bloke izanen ditu: nekazaritza-abeltzaintzako jardueretarako sarrera, nekazaritza-abeltzaintzako elikagaigintza, nekazaritza-abeltzaintzako jardueretako trebakuntza eta nekazaritza-abeltzaintzako ingurumena

Ostirala, 2018.eko abuztuak 17

Guztira, 37 ikastarok osatuko dute Nafarroako Gobernuaren [Nekazaritza-Abeltzaintzako Lanbide-Heziketako Plana](#) 2018ko bigarren seihiilekoan, eta ohi bezala, [INTIA](#) (Nekazaritzako Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua) enpresa publikoak garatuko du. Eskaintzak lau modalitate barne hartuko ditu: nekazaritza-abeltzaintzako jardueretara sarrera, nekazaritza-abeltzaintzako elikagai industria, nekazaritza-abeltzaintzako jardueretako trebakuntza eta nekazaritza-abeltzaintzako ingurumena.



INTIAk Cadreitán duen finka, baratzeko esperimentaziorako Estatuko erreferentea.

Programa hau Landa-Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak kofinantzatu dute. Interesdunek izena emateko aukera dute 948 01 30 58 telefonoan edota intiajornadas@intiasa.es helbide elektronikotan.

Edukiak

“**Nekazaritza-abeltzaintzako jardueretarako sarrera**” delako gai-multzoak bi titulu ditu: gazteak sektorerara erakartzea, nekazaritzaren nahiz abeltzaintzaren adarretan.

“**Nekazaritza-abeltzaintzako elikagai industria**” aztergai duen multzoak zazpi titulu ditu: esne gordinaren hartzaileak, gazta lantzeko oinarritzko ikastaroa, olio lantzeko teknologiei buruzko jardunaldia, gaztaren elaborazioko manipulazio eta higienerari dagozkion jardunbide egokiak, sagardoa eta zukua lantzeko oinarritzko ikastaroa, zirkuitu laburretako merkaturatzea eta marketina eta gaztaren munduari buruzko master class saioa.

“**Nekazaritza-abeltzaintzako jardueretako trebakuntza**” deritzon hirugarren multzoak 11 ikastaro ditu: ereiteko patatari buruzko jardunaldia, labore estentsiboetako sakoneko ongarritzea eta lurzoruen

bilakaera, artoari buruzko jardunaldi teknikoa, udako barazkiei buruzko jardunaldia, ardi-aziendei buruzko jardunaldi teknikoak, nekazaritza-abeltzaintzako industriaren kudeaketa informatizatua, arriskuen prebentzioa oinarritzko mailan, behi-azienden intseminazio artifizialari buruzko ikastaroa, ardi-esnearen kalitateari buruzko jardunaldia, txerrien ongizatea eta udazken-neguko barazkiei buruzko jardunaldiak.

Azkenik, "Nekazaritza-abeltzaintzako ingurumena" deritzon laugarren multzoa osatzen duten 17 ikastaroez honako gai hauek dituzte aztergai: ekoizpen ekologikorako trantsizioaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa (alternatibak mendialdean), interereseko barazkien ekoizpen ekologikoari buruzko jardunaldi teknikoa (tomatea), interereseko barazkien ekoizpen ekologikoari buruzko jardunaldi teknikoa (piperra), lurzoruen ezagutzari buruzko ikastaro praktikoa, arbendolondo ekologikoa eta fruitu lehorrak ematen dituten beste zuhaitzbatzuk, abeltzaintza modernoa, giza-kontsumorako lekadunen ekoizpen ekologikoa, ekoizpen ekologikorako trantsizioaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa (artoa eta ureztatutako labore estentsiboak), baratzezaintzako izurri eta gaixotasunetatik babesteko baliabide ekologikoak, ekoizpen ekologikorako trantsizioaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa (frutikultura), interereseko barazkien ekoizpen ekologikoari buruzko jardunaldi teknikoa (brokolia), interes komertzialeko laboreen maneia

nekazaritza ekologikoan, ekoizpen ekologikorako trantsizioaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa (haragitarako behia), ongarri berdeei buruzko jardunaldia, interereseko barazkien ekoizpen ekologikoari buruzko jardunaldi teknikoa (orburua), emankortasunari buruzko adiera klasikoak eta berriak, eta ekoizpen ekologikorako trantsizioaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa (baratzezaintza).

Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuari atxikitako INTIA enpresa publikoak 35 urte baino gehiago daramatza nekazaritzako elikadura sektoreko eragile guztien behar espezifikoak erantzuten lagun dezakeen prestakuntza teoriko-praktiko integrala eskaintzen. Urtero, INTIA 150 prestakuntza-ekintza baino gehiago antolatzen ditu, 3.500 pertsona baino gehiago erakartzen dituelarik.